

# Arau-izenburuen katramila sintaktikoak

GILEN MEJUTO

*Zer dio sutondokoak? Zer baitio sutaitzinekoak*<sup>1</sup>

## Sarrera

Gaur egun, administrazio publikoa da euskarazko testuen ekoizlerik handienetako bat, handiena ez bada. Euskal Herriko instituzio nagusiek erdaraz funtzionatzen dutenez, produkzio hori erdaraz sortzen da, salbuespen gutxi batzuekin, eta gerora zati bat euskarara itzultzen (EAEn behintzat). Beraz, gure testu gehienak ez dira besterik baizik eta prosa ezinago korapilatsu, artifizial eta hanpatu baten hala-holako moldaketak. Literatura administratiboa euskaraz sortuko bagenu, seguru asko beste era batera apailatuko genituzke testuak. Ulergarriago, naturalago, jatorrago idatziko genuke. Halako ustea dabil, behintzat.<sup>2</sup> Mundu errealean, tamalez, espainola dugu *sutaitzineko*, eta hark markatutakoari jarraitu behar, hala moduz bada ere.

Ez da kontu berria, jakina. Euskara idatziaren historiako idazlan gehienak ez dira besterik izan baizik eta prosa ezinago trinko, aspergarri eta dogmatiko baten itzulpen aski literalak (literalegiak, akaso).

Hortaz, antzeko egoerak ditugu gaurkoa eta atzokoa: biotan, euskararen sinpletasunera ekarri nahi da, ez nekerik gabe, erdal hizkera bihurria. Beste hitz batzuez esanda, oraingo itzulpen administratiboek hartu dute lehengo itzulpen erlijiosoen tokia. Badago funtsezko diferentzia

---

1. Artikulu honetan, gaurko euskara batura moldatuta ematen dira tradizioko testu guztiak.

2. Ustela, nonbait, erreparatuz gero jatorrian euskaraz idatzitako testu batzuei:

2017/0640 dekretua, Alkatetzaren 2017/ 0511 dekretuaren akats zuzenketa, 40A, 46A eta 46B etxebizitzetara zein 40A, 40B,40C, 42A, 42B,44A, 44B, 46A eta 46B lokaletara eta garajetara behin betiko sartzeko baimena ematea, SAN IGNAZIO 42A Behea 1-EAN IZAN EZIK IMPERMEABILIZAZIO ARAZOAK DIRELA MEDIO.

bat, ordea. Ordukoek tresna gehiago zituzten egokitzen etsigarri hori taxuz gauzatzeko (kasurako, izenordain erlatiboak, izen osteko erlatiboak, erlatibo hautsiak, aditz eta menderagailu aurreratuak eta partikula iragarleak). Ezaguna da gerora zer gertatu zitzaizen mendeetan zorrozitutako lanabes haiei: eskumikatu zituzten euskal gramatikatik. Egun, debekualdia gainditu dutenak ere uzkurki erabiltzen ditugu (sarritan, gaizki erabili ere). Arrotz zaizkigu, artifizial. Galdutakoaren parte bati uko eginda, prosa berri bat ehuntzeko eginahalari ekin diogu; buruhauste dezenterekin, normala den bezala.

Arlo juridiko-administratiboan, lan handia egin da itzulpen-tramankulu kamustua haxean ezartzeko, eta, azkenean, herrenak herren eta esfortzu handi baten kostuan, euskarazko idazki txukunak irakur daitezke. Baina ez gaitezen engaina: testu asko ulergaitzak eta are ulertezinak dira oraindik.

Artikulu honetan, hizpidera ekarriko dugu gure ustez administrazioko euskaran buruhauste gehien sortzen dituzten kontuetako bat: arau-izenburuen sintaxia. *Arau-izenburuak* esaldi erako formulak dira, zeinen bidez aipatzen baitira agintariak emandako legeak, dekretuak, aginduak, erregelamenduak, ebazpenak eta beste. Arau-izenburuen joserako konplexuak korapilo dezentente sortzen ditu euskaraz, batez ere testu barruko aipamenetan. Korapilo horiek askatzen saiatuko gara, beraz.

### Arau-izenburuaren osiera

Arau-izenburuak zenbait sintagmaz eratuta daude. Sintagma nagusia edo burua –izen-sintagma bat– hasieran kokatzen da, eta, haren ondotik, aposizioan datoz informazioa osatzen eta zehazten duten beste sintagmak. Burua, data eta zertarakoa<sup>3</sup> dira arau-izenburuaren ohiko osagaiak:

13/2013 Foru Araua,
abenduaren 5koa,
Pertsona Fisikoen errentaren gaineko zergari buruzkoa

burua
data
zertarakoa

Elementu hauek osatzen dute burua:

13/2013 Foru Araua

zk. urtea
arau mota

Zenbait arau-izenburutan, berriz, emaileari edo titularrari dagokion tartekia jartzen da dataren eta zertarakoaren artean:

Agindua,
2017ko azaroaren 6koa,
Hezkuntzako sailburuarena,
Muskizko «Somorrostro» Bigarren

burua
data
emailea
zertarakoa

Hezkuntzako Ikastetxe Pribatuari (Bizkaia) bi ikastetxetan banatzeko baimena emateko dena,

zertarakoa

3. Gaia, edukia edo xedea izan daiteke zertarakoa.

Antolaera hori ez da euskaraz erabiltzen den bakarra, baina ohikoena da arau-izenburua bakartuta edo zerrenda batean agertzen denean, hau da, testu baten barruan aipatuta azaltzen ez den kasuetan.

Ikusten denez, gaztelaniaren ordenari jarraitzen dio, baina ez hitzez hitz; sintagmaz sintagmako korrespondentzia da. Beste hizkuntza askotan ere antzeko egitura usatzen da, sintagmaren bat beste posizio batean ager badaiteke ere. Europako Parlamentuaren lege-egintzek, esaterako, goikoen ordena bertsua dute. Hona adibide bat:

Reglamento (UE) 2015/478 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 11 de marzo de 2015, sobre el régimen común aplicable a las importaciones

Honela euskaratu dezakegu, sintagma-hurrenkera bera erabilita:

2015/478 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2015eko martxoaren 11koa, inportazio-arau komunei buruzkoa

EUR-Lex atarian ikusi dugunez, Europar Batasuneko 24 hizkuntza ofizialetatik, 15ek gaztelaniazko eta euskarazko bertsioren ordena bera erabili dute erregelamendu horren izenburuan. 6 hizkuntzak, berriz, honela moldatu dute:

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/478 (EE) Erregelamendua, 2015eko martxoaren 11koa, inportazio-arau komunei buruzkoa

Beste 2 hizkuntzak, modu honetan:

Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2015/478 (EE), 2015eko martxoaren 11koa, inportazio-arau komunei buruzkoa

Azkenik, hizkuntza bat hurrenkera honetaz baliatzen da:

2015eko martxoaren 11ko 2015/478 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, inportazio-arau komunei buruzkoa

Ikus daitekeenez, aldaera gutxi batzuk gorabehera, antolaera bera darabilte Europako hizkuntza ofizial guztiek. Hori dela eta, esango dugu atal honen hasieran azaldutako sintagma-hurrenkera dela arau-izenburuen ordena «kanonikoa». Hurrenkera hori, beraz, ez da gaztelaniarena soilik, harako *Standard Average European* harena baizik, nolabait esateko.

Europarekin oraingoz amaitzeko, estonieraren kasua nabarmenduko dugu. Gainerako hizkuntza guztiek elementu prepositibo bat ezartzen dute zertarakoaren hasieran, perpaus hori buruarekin lotzeko. Estonierak, berriz, postposizio bat erabiltzen du, euskarak bezala:

impordi ühiste eeskirjade **kohta**  
inportazio-arau komunei **buruzkoa**

## Arau-izenburuen aipamena

Gure ustez, ulermena errazte aldera, komeni da hurrenkera kanonikoari ahal bestean eustea tes-tuinguru guztietan. Sintagma arinek (data, emaille laburrak) askatasun handiagoa izan dezakete posizioari dagokionez; sintagma luzeak, ordea, buruaren ostean mantendu beharko lirateke. Hori egitea ez da beti erraza gure hizkuntzan. Testu barruan, esaterako, komeriak izaten ditu-gu itzultzaileok zertarakoari kokapen egokia emateko esaldia lardastu gabe. Gaia ez da berria. Legeak aipatzeko era maiz izan da eztabaidagai itzultzaileen foroetan, eta era askotako soluzioak proposatu dira.<sup>4</sup> HAAEko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak, bestalde, hau gomendatzen du (IZO, 2016: 52):

Lege-izena zerrenda batean badago, honela eman daiteke:

*6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.*

Testu barruan agertzen bada lege-izena, kasu bakoitzean ikusi behar da nola jokatu. Hona hemen aukera batzuk:

- a) Gaia laburra bada: lehenengo, legearen gaia; gero, legearen data eta zenbakia, biak ere parentesi artean. Batzuetan ez da zertan parentesia erabili data eta zenbakia emateko, baina parentesia erabiltzea erabakiz gero, honela eman daiteke: *Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea (uztaila-ren 6ko 6/1989 Legea)* edo *Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea (6/1989, uztailaren 6koa)*
- b) Gaia oso luzea bada: lehenengo, legearen data eta zenbakia; gero, legearen gaia, parentesi artean. Alegia: *azaroaren 25eko 27/1983 Legea (Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen Arteko Harremanei buruzkoa)*

Horren arabera, lege-izenburu bat testu barruan txertatzeko, ohikoa –ezinbestekoa?– da hurrenkera aldatzea. Parentesia erabiltzeak, berriz, arindu egiten du osagaien metaketak ulermenari eragiten dion traba, bereziki gaia –zertarakoa– luzea den kasuetan.

Gure ustez, IZOren gomendioak azaletik baino ez dio heltzen arazoari; aipatu gabe uzten ditu arau-izenburuekin lotutako beste kontu labain batzuk.

Batetik, zertarako luzeaz den bezainbatean, ez da ezer esaten lotura-elementuaren posizio atzeratuaz. Kontuan izan behar da ezen, zertarakoa buruarekin lotzen duen elementua (*bu-ruzkoa* postposizioa, kasu honetan) amaieran joateak ulermena galaraz dezakeela. Zenbat eta luzeagoa tartekia, orduan eta ulergaitzagoa esaldia. Ikus dezagun zertarako luzeago bat, hobeto jabetu gaitezen problemaz:

4. Aipagarria da, bere ausardiagatik, Iñaki Iñurrieta Labaienek duela urte batzuk *2tzul* blogean egin zuen ekarpena. Literatura zaharretik erreskatatu zituen, besteak beste, izen osteko *-(z)ko* sintagmak (*gizon naturazkoa, Espiritu zeruko batzuko*), eta arau-izenburuetan erabiltzea proposatu:

30/2007 Lege urriaren 30eko Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa

*burua*

2/2007 Legea, martxoaren 23koa, baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa

*lotura-elementua*

Bestetik, arau-izenburuaren kasu absolutiboa baino ez dute hartzen kontuan IZOkoek beren gomendioan. Baldin buruak beste kasu-marka bat eta/edo aposizio bat hartzen badu edota, are okerrago, artikulua jakin baten aipamena badakar, askoz nahasgarriago gertatzen da emaitza:

Hori dela eta, azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.b.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita (Autonomia Erkidego Osorako Erakunde eta Bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundearen Arteko Harremanei buruzko Legea), Nekazaritza Sailak proposatuta eta Foru Aldundiak 2010eko abuztuaren 24ko bileran eztabaidatu ostean, honako hau XEDATZEN DUT: [...].

Adibidean ikusten denez, zertarakoa «dislokatuta» agertzen da, burutik urrun, eta eten egiten du esaldiaren jariora. Izan ere, parentesiek –dio HAEEK berak– «oso lotura sintaktiko ahula izaten dute esaldiaren egiturarekin» (HAEE, 2009: 52). Askoz larriagoa litzateke zertarakoa ezkerretzatzea, adibide erreal honetan bezala:

Hori dela eta, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.b.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17. eta 64.3 artikuluek emandako ahalmenak erabilita, Nekazaritza Sailak proposatuta eta Foru Aldundiak 2010eko abuztuaren 24ko bileran eztabaidatu ostean, honako hau XEDATZEN DUT: [...].

### Zertarakoaren lotura-elementua

Beharbada oker gaude, eta, ikusirik gaur egun zein den joera nagusia, ezin hobeto ulertzen dira lege-izenburu hauek:

17/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Etxebizitzaren Arloko Presako Neurriak eta Hirigintza Plangintzako zein Kudeaketako Tresnak Izapidetzeko Neurriak Zehazteari buruzkoa

9/1998 Legea, apirilaren 3koa, Donostiako erdiko mailako Musika Kontserbatorioa (Donostia-San Sebastián) eta «Jesús Guridi» erdiko mailako Musika Kontserbatorioa (Vitoria-Gasteiz) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren menpeko ikastetxeen sare publikoan sartzekoa

6/2012 Legea, martxoaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren gehiengoko partaidetza edo finantziarioa daukaten erakundeak arautze aldera, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legea eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Legea aldatzekoa

Lotura-elementua burutik hain urrun egonda, ez ote da ulermen-arazorik sortzen?

Baietz uste dugu: arazo larria. Orduan, zergatik erabiltzen ditugu horrelako egitura nahasgarriak?

Auziaren arrazoietakoa bat aurkitzeko, denboran atzera egin behar dugu, arauak nola idatzi behar diren finkatu zen garaira.

Zertarakoa azaltzen duten tartekien sintaxia, hain justu, 1993ko agindu honetan arautu zen:

Agindua, 1993ko apirilaren 6koa, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailburuarena, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1993ko martxoaren 23an egin zuen bilkuran onartu eta Lege Egitasmoak, Dekretuak, Aginduak eta Erabakiak lantzeko jokabideak onartzen direneko Akordioa argitaratu dadila agintzen duena.<sup>5</sup>

Agindu horren lehenengo «jokabide»an, 6. puntuan, hau ezartzen da:

Lege Egitasmo eta Dekretuetako izenburuetan, honako era hauetan batuko dira edukia eta lehenengo zatia: «**tezko/tzezko**» kasu-marka gehi «**a**» aposizioa, xedapenak hartzen duen arloa erabat araututa gelditzen dela jotzen bada; «**buruzkoa**» posposizio-bidez, arautzen dena arloaren alde bat besterik ez dela arautzen pentsatzen bada; eta gainontzeko kasuetan, «**ena**» aposiziozko erlatibo bidez. Agindu edo Erabakietako izenburuetan, honako era honetan batuko dira edukia eta lehenengo zatia: «**ena**» aposiziozko erlatibo bidez edo «**buruzkoa**» posposizio-bidez.

En los Proyectos de Ley y Decretos la indicación objetiva irá unida al resto del título mediante la preposición «**de**» cuando se considere que la disposición regula completamente la materia que constituye su objeto, o la partícula «**sobre**» si se quiere indicar que la materia es más amplia que la abarcada. En los restantes casos se acudirá a una oración de relativo. Las Ordenes o Resoluciones comenzarán la indicación por las expresiones «**por el/la que**», «sobre», «de» etc.

Hona, beraz, arau-izenburuen zertarakoak josteko ditugun hariak: *-tzezkoa* (sic), *buruzkoa* eta erlatibo aposatua.

Horiei gehitu behar zaie lege-izenburu batzuetan erabiltzen den *-en* genitiboa + *-a* artikulua, gatzelaniazko *de* itzultzeko. Aurkitu ditugun holako guztiek gai labur samarra dute, eta printzipioz ez dirudi ulermen-arazorik sortzen dutenik. Hona adibide batzuk:

2/2011 Legea, martxoaren 17koa, Ehizarena

1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzarena

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena

Ikus ditzagun azken urteotako arau-izenburu labur batzuk, 1993ko arauaren arabera moldatutakoak:<sup>6</sup>

5. Amaierako erlatibo hori ez al dago urrunegi burutik?

6. Edo halakoak beharko luketenak, zeren, adibideetan ikusten denez, euskarazko itzulpenetan ez baita beti betetzen 1993ko aginduaren lehenengo jokabidean ezarritakoa.

<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>de</b></li> </ul>	<p><i>Ley 13/2016, de 28 de julio, <b>de Turismo</b></i> 13/2016 Legea, uztailaren 28koa, Turismoarena</p> <p><i>Ley 1/2016, de 7 de abril, <b>de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias</b></i> 1/2016 Legea, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari <b>buruzkoa</b></p> <p><i>Ley 8/2016, de 2 de junio, <b>de modificación de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno</b></i> 8/2016 Legea, ekainaren 2koa, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzeko <b>onartzen duena</b></p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>sobre</b></li> </ul>	<p><i>Ley 5/2012, de 23 de febrero, <b>sobre Entidades de Previsión Social Voluntaria</b></i> 5/2012 Legea, otsailaren 23koa, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeena</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>por el/la que se</b></li> </ul>	<p><i>Decreto legislativo 1/2017, de 27 de abril, <b>por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Gestión de Emergencias</b></i> 1/2017 Legegintzako dekretua, apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu batagina <b>onartzen duena</b></p>

Hona gaztelaniazko beste formula batzuk, ez hain erabiliak:

<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>regulador/a de</b></li> </ul>	<p><i>Ley 10/2016, de 30 de junio, <b>reguladora de la Iniciativa Legislativa Popular</b></i> 10/2016 Legea, ekainaren 30koa, Legegintzako Herri Ekimena arautzeari <b>buruzkoa</b></p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>para la/el</b></li> </ul>	<p><i>Ley 4/2015, de 25 de junio, <b>para la prevención y corrección de la contaminación del suelo</b></i> 4/2015 Legea, ekainaren 25koa, Lurzoria kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko <b>garbitzekoa</b></p>

Ez da hain gaitza luzera txikiko izenburuak ulertzea. Baina errepara diezaiegun luzeago hauei:

*Decreto 163/2008, de 30 de septiembre, **sobre autorización, homologación, inspección y registro de las entidades colaboradoras en la atención socioeducativa a personas infractoras menores de edad en la Comunidad Autónoma del País Vasco***

163/2008 Dekretua, irailaren 30koa, Euskal Autonomia Erkidegoko arau-hausle adingabeei gizarte- eta hezkuntza-arreta eskaintzeko erakunde laguntzaileak baimendu, homologatu, ikuskatu eta erregistratzeari **buruzkoa**

*Ley 12/2016, de 28 de julio, de reconocimiento y reparación de víctimas de vulneraciones de derechos humanos en el contexto de la violencia de motivación política en la Comunidad Autónoma del País Vasco entre 1978 y 1999*

12/2016 Legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei erreko-nozimendua eta erreparazioa **ematekoa**

*Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi y se regula el régimen presupuestario aplicable a las Fundaciones y Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi*

1/2011 Legegintza Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testuategina onartzen duena eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea **arautzen duena**

Gauzak behar bezala komunikatzeko, burutik urrunegi dago lotura-elementua. Damurik, ez da erraza konponbide bat aurkitzea baliabide horiek erabilia. Luzera zernahi izanda ere irakurgarriagoak diren izenburuak taxutu nahi baditugu, beste bide batetik jo beharko dugu.

## **Erlatibo aposatuaren zuzentasuna auzitan**

Ikus dezagun berriro aurreko ataleko azken adibidea:

1/2011 Legegintza Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testuategina onartzen duena eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duena.

Esan dugunez, erlatibo aposatua (-na) ez zaigu egitura funtzionala iruditzen horren zertarako luzeetarako. Konponbide gisa, *erlatibo hautsia* deritzona erabil liteke, -na atzizkidun adizkia perpausaren hasierara ekarrita:

1/2011 Legegintza Dekretua, maiatzaren 24koa, **onartzen duena** Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testuategina eta **arautzen duena** Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea.

Horrelako ordenak ez dira maiz ikusten egungo testuetan, baina inoiz erabili izan dira tradizio idatzian.

Baina luzetasunaren arazoa konponduko balitz ere, bada beste eragozpen bat: ez da gramatikalki zuzena erlatibo aposatua zertarakoetan erabiltzea.

Hori segitzen da behintzat Juan Garziaren azalpenetatik (2014: 90). Izan ere, haren arabera, erlatibo aposatuak<sup>7</sup> bi baldintza bete behar ditu:



- a) Absolutiboan egon behar du.
- b) Aurrekari zehaztugabea izan behar du (perpau erlatiboak zehaztapenez hornituko baitu aurrekari hori).

Lehenengo baldintza betetzen da goiko dekretu-izenburuan, bai, baina zer gertatuko litza-teke aipamena kasu inesiboan txertatuko bagenu testu batean? Honelako zerbait:

1/2011 Legegintza Dekretuan, maiatzaren 24koan, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duena eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duenean, [...].

Gramatikalki okerra dugu esaldia,<sup>8</sup> beraz. Hobe beharrez edo, honen modukoak idazten dira inoiz:

Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duen eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintza Dekretuan, [...].

Zalditik astora joan gara.

Bigarren baldintzari dagokionez, aurrekari zehatz-zehatza dugu arau-izenburu honetakoa: 1/2011 Legegintza Dekretua, maiatzaren 24koa. Aurrekaria zehaztugabetzat hartzeko, normaltzat jo beharko genuke 1/2011 Legegintza Dekretu bat baino gehiago egotea, denak ere maiatzaren 24an emanak. Posible izan daiteke, bai, baina ez da oso gertagarria.

Beraz, Garziaren arrazoibideari jarraikiz, erlatibo aposatuak ez digu balio. Zertarakoaren aposizio-egitura mantenduko bada, nahitaez jo beharra dago izenordain erlatiboazko perpausetara, hots, *zein* erlatibora.

### Izenordain erlatiboazko perpausak

Gero eta testugile eta itzultzaile gehiago ausartzen dira zertarakoa era honetan ematera:

1/2011 Legegintza Dekretua, maiatzaren 24koa, **zeinaren bidez** Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina **onartzen baita** eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea **arautzen baita**

7. Garziak *-n perpau* (*eskuineratua*) izendapena erabiltzen du. *Erlatibo* deizioa, berriz, izenordain erlatiboazko (*zein*, *non*...) perpausetarako erreserbatzen du.

8. «Perpau apositibo gibelertua ez da ergatiboan, datiboan edo inesiboan izaten ahal» (Euskaltzaindia, 1999: 215).

Egitura horrek buruaren deklinaziotik askatzen du zertarakoa, eta modu horretan ez da beharrezkoa arau-izenburuen antolaera kanonikoa aldrebestea edota zertarakoa parentesiekin bakartzea edo oin-ohar batera bidaltzea:

1/2011 Legegintza Dekretuan, maiatzaren 24koan, zeinaren bidez Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testuategina onartzen baita eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen baita, [...].

Gauza bera postposizioekin; kasu honetan, data ezkerteratuta:

Maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintza Dekretuari jarraikiz, zeinaren bidez Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testuategina onartzen baita eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen baita, [...].

Hauek dira egungo prosa administratiboan gehien ikusten diren egitura erlatiboak:

- zeinak ezartzen baitu/duen
- zeinaren bidez ezartzen baita/den
- non ezartzen baita/den

Adizkiak hartzen duen menderagailuari dagokionez, historikoki *bait-* erabili izan da Euskal Herriko ekialdean eta *-n* mendebaldean. Artikulu honetan, *bait-* aurrizkia aukeratu dugu, anbiguotasun gutxiago sortzen duelako. Konparatu bi esaldi hauek:

Eskaera horrekin batera, erakunde titularrak (CICC) bidalitako lagapen-proposamena ere aurkeztu da, non zehazten diren erabiltzeko baldintzak eta lagatzen den espazioaren identifikazio-planoa.

Eskaera horrekin batera, erakunde titularrak (CICC) bidalitako lagapen-proposamena ere aurkeztu da, non zehazten baitira erabiltzeko baldintzak eta lagatzen den espazioaren identifikazio-planoa.

Halere, abantailak abantaila, ez dugu bata hobesten bestearen kaltetan.

Izenordainaren eta aditzaren arteko distantzia

Tradizioan, ohikoa zen aditz menderagailuduna *zein* izenordainaren ondo-ondoan agertzea. Hala berretsi zuten Xabier Alberdik eta Julio García (1998: 246-249) *Orotariko Euskal Hiztegiaren* corpusa arakatuta. Hona haien artikulutik jasotako adibide batzuk:

esperantza da bertute bat **zeinek ematen baitigu** fidantzia handi bat (Materra)

kontrizioaz bertze dolore molde bat, paradisu-rako loriaren galtzeko edo infernuko penetara joateko beldurtasunetik heldu dena, **zein deitzen baita** *atritio*, atrizioa (Axular)

zeren guziek egiten dute gorputz bat, **zein baita** eliza (CatB)

[Infernu] da presondegi eta toki ilun itzal ikaragarri bat, **zeinetan dauden** galdu madarikatuak estu-esturik kateekin loturik (Añibarro)

Osagarria luzea den kasuetan, aukera hori erabiltzeak biziki erraztuko luke irakurketa:

1/2011 Legegintza Dekretua, maiatzaren 24koa, **zeinaren bidez onartzen baita** Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testuATEGINA eta **arautzen baita** Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea

### *Zeinaz* izenordaina

Izenordain erlatiboa kasu instrumentalean jartzeko, *zeinaren bidez* forma erabiltzen da gehienetan. Haren ondoan, *zeinaz* ere erabil daiteke. Gutxi ikusten da gaur egun, baina zehatzagoa eta ekonomikoagoa da, inondik ere. Hona tradiziozko zenbait adibide:

Estaliak ginen krimenez, zeinak eratziki baititugu bekatu originalari, *zeinaz* jadanik oro kriminalak eginak baikin. (Jauretze)

Mantsotasuna, neurritasuna, ohorea eta umiltasuna bertute batzuk dira zeinez gure biziaren obra guziak behar baitira koloreztatu. (Pouvreau)

Predestinazioa da Jainkoaren kontseilu eta ordenamendu eternala, zeinez ordenatu baititu batak salbamendutara eta bertzeak damnaziotara. (Leizarraga)

Dekretu-izenburuari aplikatuta:

1/2011 Legegintza Dekretua, maiatzaren 24koa, **zeinaz** onartzen baita Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testuATEGINA eta arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea

Ikus dezagun, laburbilduta, orain arte zer lortu dugun *zein* erlatiboa erabiliz:

- Arau-izenburuaren ordena kanonikoa mantentzea.
- Menderakuntzaren bidez izenburua esaldi bakarrean ematea, zatiketarik gabe.
- Zertarakoaren hasieran ematea lotura-elementua eta, beraz, aditza.
- Buruaren deklinaziotik askatzea zertarakoa.

Halere, zertarakoa erlatibo bidez emana duten kasuak baino ez ditugu aztertu. Zer gertatzen da lotura-elementua preposizio bat denean jatorrizko hizkuntzan?

Gure ustez, posible da kasu guztiak izenordain erlatibozko perpausen bidez euskaratzea.

## Izenordain erlatibozko perpausen askotariko balioa

Izenordain erlatiboko perpausak erabilgarriak dira, erdal erlatiboak ez ezik, bestelako egiturak ere itzultzeko. Adibide interesgarri batzuk arrantzatu ditugu han eta hemen.

### Partizipioak euskaratzeko

*Pero pudieran ponerla en la resbaladiza senda del error esas opiniones llamadas liberales, **acceptas a muchos católicos**, por otra parte hombres de bien y piadosos*

Hutsegitearen bide labainean jarriak izan litezke irizikizun liberalak deitzen direnengandik, **zeinak beretzen dituen** asko katoliko, bestetik gizon prestu eta jainkotiak diradenak. (Biguri, 1994)

Hona, berriz, guk moldatutako adibide bat:

*Orden de 26 de julio de 2017, del Consejero de Turismo, Comercio y Consumo, por la que se regula y convoca para el ejercicio 2017, el programa de ayudas **destinadas** a incentivar las estrategias zonales de Cooperación, Dinamización y Competitividad Comercial Urbana Hirigune*

Agindua, 2017ko uztailaren 26koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaz arautzen eta iragartzen baitira, 2017 ekitaldirako, Hirigune programaren laguntzak, **zeinen xedea baita** zonako estrategiak aitzinatzea, hiri-merkataritzan bultzatze aldera lankidetzta, dinamizazio eta lehiakortasuna

### Gerundioak euskaratzeko

*Kepa me ha escrito una carta **diciéndome** que ha muerto Joxe Martin.*

Kepak gutun bat idatzi dit, **zeinetan esaten baitu** Joxe Martin hil dela. (Kaltzakorta, 2007: 62)

Gogora dezagun ezen, arau-izenburuetan, ingelesak gerundioa *–present continuous–* darabilela gaztelaniazko erlatiboaren eta frantsesezko orainaldiko partizipioaren lekuan:

Council Implementing Regulation (EU) 2018/565 of 12 April 2018 **implementing** Regulation (EU) No 359/2011

Reglamento de Ejecución (UE) 2018/565 del Consejo, de 12 de abril de 2018, **por el que se aplica** el Reglamento (UE) n.º 359/2011

Règlement d'exécution (UE) 2018/565 du Conseil du 12 avril 2018 **mettant** en œuvre le règlement (UE) n° 359/2011

Euskarak *zein* erlatiboa aukera-aukerako du –eta berezko, nolabait esan– halakoak euskaratzeko:

Kontseiluaren 2018/565 (EE) Betearazpen Erregelamendua, 2018ko apirilaren 12koa, zeinaz ezartzen baita 359/2011 (EE) Erregelamendua

## Adjektiboak euskaratzeko

*Vous pourrez aussi prendre des coqs, des canards, et amener un veau bon à tuer*

hiltceco on den ahetece bat  
chahal bat, ehaiteko houn dena  
ahaché bat on dena hiltzeko  
aratze hiltceco on den bat  
arethe houndembat ehaiteko (Hidalgo, 2009)

Kasu honetan, erlatibo aposatua erabili dute itzultzaile guztiek, baina baldintza guztiak betetzen dira *zein* erlatiboa ere erabili ahal izateko:<sup>9</sup>

txahal bat zein(a) baita hiltzeko on

## Preposizioak euskaratzeko

Euskarazko adibiderik ez dugunez, beste nonbait aurkitu dugu argibidea. Gorago ikusi dugu, Europako erregelamendu baten izenburua hizpide izan dugunean, nola hizkuntza ofizial guztiek elementu «aurrerakoi» bat erabili duten zertarako laburra aurreko sintagmekin lotzeko; guztiek, estonierak izan ezik. Hizkuntza horretan, postposizioa erabiltzen da, euskaraz bezala. Aldiz, zertarakoa luzeagoa denean, zer egiten du estonierak? Aurkitu dugun adibide honetan, lotura-elementua hasiera-hasierara pasatu da:

**on** official controls and other official activities performed to ensure the application of food and feed law, rules on animal health and welfare, plant health and plant protection products

**mis käsitleb** ametlikku kontrolli ja muid ametlikke toiminguid, mida tehakse eesmärgiga tagada toidu- ja söödaalaste õigusnormide ning loomatervise ja loomade heaolu, taimetervise- ja taimekaitsevahendite alaste õigusnormide kohaldamine,

*Mis käsitleb* horrek, literalki, ‘zeinak tratatzen baitu’ esan nahi du.

Ildo beretik, *zein* erlatiboa erabilita erraz molda daitezke *-i buruz* postposizioaren balioki-deak diren zenbait egitura aurrerakoi, hala nola:

zeinak hizpide baitu  
zeinak gai baitu  
zeinak hitz-gai baitu  
zeinak tratatzen baitu  
zeinak jorratzen baitu

---

9. Alegia, aurrekaria zehaztugabea izatea eta absolutiboan egotea.

Hortik abiatuta, ausart gintezke ikusitako lotura-elementu prepositibo guztietarako erlatibo-ko baliokideak proposatzera:

- **por el/la que/cual se: zeinaz zeratzen baita**

*Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de organización, funcionamiento y régimen jurídico de las entidades locales (en lo sucesivo, ROF)*

2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, zeinaz onartzen baita toki-erakundeen antolaketari, funtzionamenduari eta araubide juridikoari buruzko Erregelamendua (AFE)

*Decreto Legislativo 2/2017, de 19 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi*

2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, zeinaz onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina

- **sobre: zeinak hizpide/gai/hitz-gai baitu, zeinak tratatzen/jorratzen baitu**

*Decreto 163/2008, de 30 de septiembre, sobre autorización, homologación, inspección y registro de las entidades colaboradoras en la atención socioeducativa a personas infractoras menores de edad en la Comunidad Autónoma del País Vasco*

163/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa, zeinak hizpide baitu Euskal Autonomia Erkidegoan arauhausle adingabeei arreta sozioedukatiboa eskaintzera laguntzen duten erakundeak baimentzea, homologatzea, ikuskatzea eta erregistratzea

*Real Decreto 815/2001, de 13 de julio, sobre justificación del uso de las radiaciones ionizantes para la protección radiológica de las personas con ocasión de exposiciones médicas*

815/2001 Errege Dekretua, uztailaren 13koa, zeinak tratatzen baitu pertsonak esposizio medikoe-tan erradiatziotik babeste aldera erradiazio ionizatzaileak erabiltzeko justifikazioa

- **de: zeinak zeratzen baitu**

*Orden de 23 de octubre de 2017, de la Consejera de Empleo y Políticas Sociales, de inicio del procedimiento de elaboración del Decreto de segunda modificación del Decreto de Ayudas de Emergencia Social*

Agindua, 2017ko urriaren 23koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinak hasiera ematen baitio Gizarte Larrialdietarako laguntzei buruzko Dekretua bigarren aldiz aldatzeko Dekretua elaboratzeko prozedurari

*Ley 12/2016, de 28 de julio, de reconocimiento y reparación de víctimas de vulneraciones de derechos humanos en el contexto de la violencia de motivación política en la Comunidad Autónoma del País Vasco entre 1978 y 1999*

12/2016 Legea, uztailaren 28koa, zeinak errekonozimendua eta erreparazioa arautzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean egondako motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideak urratu zaizkien biktimentzat

- **para la/el: zeinaren xedea baita, zeinak xede baitu**

*Ley 4/2016, de 6 de mayo, para el establecimiento de un régimen sancionador en materia de espectáculos públicos y actividades recreativas en la Comunidad Autónoma de Extremadura*

3/2016 Legea, maiatzaren 6koa, zeinak xede baitu ikuskizun publikoen eta josta-ekintzen arloan araubide zehatzaile bat ezartzea Extremadurako Autonomia Erkidegoan

- **que se refiere a, el/la cual se refiere: zeinak aipagai/aipatzen baitu**

*Decreto Foral 4/2009, de 27 de enero, que regula el uso de las lenguas oficiales en el ámbito de la Diputación Foral de Gipuzkoa para el periodo 2008-2012*

4/2009 Foru Dekretua, urtarrilaren 27koa, zeinak arautzen baitu hizkuntza ofizialen erabilera Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduera-esparruan 2008-2012 aldirako

Nolanahi ere, baliabide hori onartuta ere, aukera «atzerakoiak» erabilgarriak lirateke oraindik ere zertarako laburretan. Holakoetan, ez da arazo berezirik sortzen, printzipioz, zertarako eta beste sintagma laburrak buruaren ezkerrean emanda ere:

Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legea

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legea

Bestalde, gerta daiteke testugileak ez ikustea noiz tratatzen duen luzetasunak ulermena, eta ezin erabakitzea zein eredu den egokiena. Ulergarritasunaren muga, azken batean, oso gauza subjektiboa da. Guztiarekin ere, ez da debeku izenorde erlatibozko perpausak izenburu labur samarretan ere erabiltzea:

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, zeinak arautzen baitu Administrazio Publikoen Prozedura Administrazio Komuna

Orain, gauzak apur bat gehiago konplikatzen, murgil gaitzen testu barruan.

## **Arauen artikulua ere aipagai**

Berreskura dezagun gorago IZOren irizpideetako adibide luzeaz moldatu dugun paragrafoa (lege-izenburuaren elementuak letra lodiz nabarmenduta daude):

Hori dela eta, **azaroaren 25eko 27/1983 Legearen** 7.b.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita (**Autonomia Erkidego Osorako Erakunde eta Bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundearen Arteko Harremani buruzko Legea**), Nekazaritza Sailak proposatuta eta Foru Aldundiak 2010eko abuztuaren 24ko bileran eztabaidatu ostean, honako hau XEDATZEN DUT: [...].

Lehen esan dugu aukera hori ez zaigula egokia iruditzen. Baina arazoa ez da konpontzen soluzio gisa aurkeztu dugun *zein* erlatiboa erabilita ere:

Hori dela eta, azaroaren 25eko **27/1983 Legearen** 7.b.1.) artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita, **zeinak** arautzen baititu Autonomia Erkidego osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremanak, Nekazaritza Sailak proposatu eta Foru Aldundiak 2010eko abuztuaren 24ko bileran eztabaidatu ostean, hauxe XEDATU DUT: [...].

Burua katigatuta geratu da genitiboz lotutako izen-sintagmen kate luzean, eta, kate hori ezin denez apurtu, aurrekaria urrunegi dago izenordain erlatibotik. Hala, konexioa egiteko, testuinguruaz baliatu behar dugu. Baina testuingurua ez dugu beti lagun izango.

Atal honetan, korapilo hori askatzeko bi modu ikusiko ditugu. Abisu bat, ekin aurretik: ez dira bide ortodoxoak; gaur egun, ez dira ez ibiliak ez ezagunak, oro har. Horregatik, gramatikalki zuzenak badira ere, ez dugu horrelakoak erabiltzen hasteko proposamen zuzenik egingo. Modu esperimentalean-edo aurkezten ditugu hemen, erlatiboaren potentzialaren erakusgarri.

#### a) Ordena itzulikatzea

Zehazki, elementuak segida honetan antolatzea:

[arabera] + [xedatutakoa] + [7.b.1.) artikuluan] + [azaroaren 25eko 27/1983 Legea], [zeinak...].

Ikusten denez, erdal ordenaren berdin-berdina da, baina sintagmaka moldatuta:

[de acuerdo con] + [lo establecido] + [en el artículo 7.b.1)] + [de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre], [de...].

Antolaera horri esker, burua eta izenordain erlatiboa elkarren ondoan ezar daitezke. Elementuak sintaktikoki jostea baino ez zaigu falta. Horretarako, ahazmenetik aterako dugu *aurrekaririk gabeko galde-izenordaina duen erlatiboa* (Euskaltzaindia, 1999: 257), bi aldaeratan: *zer* erlatiboa eta *-n* erlatiboa.

- *Zer* erlatiboa (ez *zein*)

Artikulu honen hasiera-hasieran iragarri dugu baliabide hau, erdi ezkutuan edo, izenburuaren azpian. Ekar dezagun hona berriro:

Zer dio sutondokoak? Zer baitio sutaitzinekoak. (Oihenart)

Beste adibide klasiko batzuk:

Emanen diela **zer baitute** merezi. (Etxepare)

O, gure dohakabeak, ez baitugu sinetsi **zer baitzuen hainbat** prestu eta sainduk onetsi! (Etxeberri)

Jauna, zu izan zara fraideen buruzagia. Konpliaraziezaguzu **zer baikara** manatzen. (Harizmendi)

Jaungoikoari zerbitzatu behar da **zertan** nahi duen berak. (Lizarraga)



Oihenarten atsotitzaren bigarren esaldia txantilo gisa erabiliz, honela molda daiteke goiko esaldia:

<i>Zer baitio</i>		<i>sutaitzinekoak</i>	
zer baitu xedatzen	7.b.I.) artikuluan	azaroaren 25eko 27/1983 Legeak	zeinak [...].

- *-n* erlatiboa

EGLU-Ven esaten denez, ardatz agerikorik gabeko erlatibo hauek «artikuluarekin agertzen direnean haien barneko osagaiak aditzaren eta artikulua eskuekin ager daitezke, hauen segidan» (Euskaltzaindia, 1999: 209). Horren arabera, ordena hauek zilegi liraterke:

azaroaren 25eko 27/1983 Legeak 7.b.I.) artikuluan xedatzen duena

azaroaren 25eko 27/1983 Legeak xedatzen duena 7.b.I.) artikuluan

xedatzen duena 7.b.I.) artikuluan azaroaren 25eko 27/1983 Legeak

Honenbestez, baditugu ordena itzulikatze bi modu. Baina elementu bat jostea falta zaigu oraindik.

- *Arabera*

Postposizio horren parekoak dira *-ri jarraikiz*, *-rekin bat* eta *betez*, erabilienak soilik aipatzearren. Gaztelaniaz, haien baliokide diren lokuzio adberbial asko daude:

*con arreglo a, conforme a, de conformidad con, de acuerdo con, en base a, en consonancia con, en cumplimiento de, en virtud de, según*

Ordena guztiz alderantzikatze, perpaus hasierara eraman beharko genituzke euskarazko egitura postposizionalak. Baina nola egin hori?

Aspaldi ez dela, Jesus Maria Agirre Berezibarrek (2012), *kontuan izanik*, *aintzat harturik* eta antzekoak eredu hartuta, honelako egiturak proposatu zizkigun:

asmoa izanik = ‘con la intención de’  
 helburua izanik = ‘con el fin de’  
 baldintza delarik = ‘bajo la condición de’  
 arrazoia delarik = ‘con el argumento de que’  
 aitzakiatzat hartuz = ‘bajo el pretexto de que’

Horien oso antzekoak dira egungo testuetan nahiko zabalduta dauden *helburu izan* eta *xede hartu* gisakoak. Hainbatetan esaldiaren amaieran ikusten badira ere, proposak dira esaldi hasieran jartzeko. Horrez gain, osagarria absolutiboan hartzen dutenez, lotura «garbia» egin daiteke ondoko elementuekin. Ikus dezagun saretik jasotako adibide bana:

Laguntza Psikologikoko Zerbitzua eskaintzea, **helburu izanik** arrisku-egoerak prebenitzea eta Osasun Mentalaren problematika areagotu dadila saihestea, baita gatazketan laguntza eta tratamendua eskaintzea ere.

Plan horrek zerbitzua definitzen du Iruñeko Udaleko kanal anitzeko zerbitzu gisara, **xede duelarik** herritarrei erraztea udalerriarekin duten eguneroko harremana, kudeaketak zentralizatuta eta gertuko komunikazioaren bitartez.

Horiek eredu hartuta, aise molda daitezke honelako esapideak:

arau (gisa) harturik, jarraibide harturik, oin harturik, oinarri harturik

Hona, beraz, lehengo paragrafoa, arau-izenburuaren ordena gure proposamenaren arabera itzulikatuta:

Hori dela eta, oinarri harturik zer baitu xedatzen<sup>10</sup> 7.b.1.) artikuluan azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, zeinak arautzen baititu Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio komunen eta hango lurralde historikoetako foru-erakundeen arteko harremanak, Nekazaritza Sailak proposatuta eta behin Foru Aldundiak gaia eztabaidatu ondoren 2010eko abuztuaren 24an egindako bileran, XEDATZEN DUT: [...].

Beste adibide bat, oraingoan *-n* erlatiboarekin:

*Siguiendo con los trámites preceptivos, se emite el presente informe jurídico por la Asesoría Jurídica del Departamento de Turismo, Comercio y Consumo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 7.3 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General*

Baitezpadako izapideekin jarraituz, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Aholkularitza Juridikoak txosten juridiko hau egiten du, horretarako jarraibide harturik **xedatzen duena** bere 7.3 artikuluan 8/2003 Legeak, abenduaren 22koak, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzkoak.

Esaldiaren antolaerak aukera ematen duenean, berriz, *hala zeratzen baitu* egitura erabil daiteke:

*El órgano de contratación es el Viceconsejero de Cultura, de conformidad con lo previsto en el artículo 3.2. b) del Decreto 82/2017, de 11 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística.*

Kulturako sailburuordea da kontratazio-organoa, **hala xedatzen baitu** bere 3.2 h) artikuluan 82/2017 Dekretuak, apirilaren 11koak, zeinaz ezartzen baita Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala.

10. Hegoaldekoon begi-belarrietan, samurragoa da *zer xedatzen baitu* hurrenkera, inondik ere. Bestalde, *-n* menderagailua erabiliz gero, zehar-galdera bat genduke, erabilgarria izan baitaiteke zenbait testuingurutan:

Ikusirik zer xedatzen duen 7.b.1.) artikuluan azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, zeinak [...].

*De conformidad con las disposiciones contenidas en el Decreto 24/2016, de 26 de noviembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, competen al Departamento de Cultura y Política Lingüística las funciones relativas a actividades artísticas y culturales así como su difusión.*

Kultura Sailari dagozkio arte eta kultura alorreko jardueren eta horien zabalkundearen eskumenak, **hala jasotzen baitu** bere xedapenetan Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak, zeinaz sortzen, ezabatzen eta aldatzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak eta finkatzen horien egitekoak eta jardun-arloak.

## b) Aurrekaria errepikatzea

Kasu honetan, aurrekaria erlatibozko perpausaren hasieran errepikatzen da, izenordainaren eskuinean, testu zaharretako adibide hauetan ikus daitekeen moduan:

Jesukristoren bihotz garbiaren *debozioaren* gainean, **zein debozio** baita aberastua benedikziorik abundantenez. (JesBih)

Galtzen du erdietsi zituen bertuteen mantentzeko indarra eta bidea ere *etsaiaren* tentazioei kontra egiteko, **zein etsaik** orduan egiten baitu bere ahal guzira ur nahasian, dioten bezala, arrantzatzeko. (Pouvreau)

Hura gabe ez baikara *arbola* idor fruiturik ekartzen ez duen bat baizen, **zeina arbola** fruiturik ekartzen ez duena kondentatua baita pikatzerat eta surat aurtikitzerat. (Le Dauphin)

[Eta Jakob zen aita] Josef *Mariaren* senarrarena, **zoin Mariaganik** sortu izan baita Jesus, Kristo deitzen dena. (TesBer)

Horren arabera:

Hori dela eta, azaroaren 25eko 27/1983 *Legearen* 7.b.1.) artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira, **zein legek** arautzen baititu Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio komunak eta hango lurralde historikoetako foru-erakundeak arteko harremanak, Nekazaritza Sailak proposatuta eta behin Foru Aldundiak gaia eztabaidatu ondoren 2010ko abuztuaren 24an egindako bileran, XEDATZEN DUT: [...].

## Azken hitza

Artikulu hau arazo erreal batetik abiatu da: testu barruko arau-izenburuen aipamenak euskartzeko gaur egun erabiltzen den sintaxia ez da, gure ustez, ez egokia, ez ulergarria, ez eta, batzuetan, zuzena ere. Egoera horren soluzioa aurkitzeko bidean, izenordain erlatibozko perpausak eta haien ahalmen sintaktikoa esploratu ditugu.

Paradoxikoa irudi dezakeen arren, baliabide «erromaniko» horrek modua eman diezaguke erdararen uztarririk apur bat askatzeko. Hala, gure beharren araberrako menderatuak sor ditza-kegu, honelako erdal egiturak itsuki imitatzen ibili gabe: preposizio-perpauasak, gerundioak, partizipioak, adjektiboak...

Balioaniztasun horren aldarrikapenak talka egin lezake zenbaiten aldeketasun uzkuurrekin, zeina agerian uzten baitute, konparazio batera, Alberdi eta Garcíaren hitz hauek: «Kaltegarritzat joko genuke erlatibo-mota honi sarbide zabalegia ematea eta itzulpengintzan, adibidez, erdaretako erlatibo guztien ordain bakartzat erabiltzea» (1998: 263). Edonola ere, oso eremu jakin eta espezifiko batera mugatu dugu gure probalekua, eta hortik kanpoko erabilerak ez daude artikulu honen irispidetan.

Euskara historikoaren baliabideak mailegatzean, bestalde, gaurko euskararen gramatikaltasunari ahal bestean eusten saiatu gara. Alde batera utzi ditugu, beraz, egun polemika sortzen duten beste kontu batzuk (esaterako, galdegaiaren posizioa). Gure nahia hausnarketa sustatzea da, problemen soluzioak bilatzea, ez eztabaida amaiezinetan murgiltzea.

Zenbaitek mezu konplexuak eman nahi dituzte euskaraz baliabide sinpleak erabilia. Guk ez dugu uste hori beti eta esparru guztietan posible denik –gaurko euskara administratiboan, kasurako–, ez eta komenigarria ere. Korapilatsu, artifizial eta hanpatua izatea ez da gaztelaniazko prosa administratiboaren bereizgarri eskusiboa. Txakurrak oinutsik dabilza Europako beste herrialdeetan ere, eta, administrazioko hizkera erraztearen alde han-hemen sortutako mugimenduak gorabehera, susmoa dugu ezen lege-aipamenen eta haiek txertatuta dauden testuen katramila sintaktikoak gertakari unibertsalak direla. Mintzaira sinplearekin batera, hortaz, baliabide konplikatuak ere behar ditugu, sintaxi konplexuak eraginkortasunez taxutu ahal izateko.

Merezi du gogora ekartzea Kepa Altonagak (2015: 112) esandako hau:

Ildo beretik erantsi behar da, euskal prosari erlatibo anaforikoa galaraztea euskara autoimmolatzea litzatekeela, zeren euskara errazean ez baikara asago joango, izatez ito egingo gara euskara errazean plisti-plastaka. Aitzitik, desengaina gaitezen, prosa homologagarria eraiki behar badugu, prosamolde bat nazioarteko prosa komunetik hurbil egongo dena. Baina, anaforiko horiek baztertzen diren unetik, ezinezko bihurtzen dugu prosa homologagarri hori!

Amaitzeko, ariketa bat proposatzen dizuegu. Saia zaitzete EUR-Lex webgunetik hartutako arau-izenburu hau euskaratzen, artikulu honetan azaldutako baliabideekin eta haiek gabe:

*Regulation (EU) 2017/625 of the European Parliament and of the Council of 15 March 2017 on official controls and other official activities performed to ensure the application of food and feed law, rules on animal health and welfare, plant health and plant protection products, amending Regulations (EC) No 999/2001, (EC) No 396/2005, (EC) No 1069/2009, (EC) No 1107/2009, (EU) No 1151/2012, (EU) No 652/2014, (EU) 2016/429 and (EU) 2016/2031 of the European Parliament and of the Council, Council Regulations (EC) No 1/2005 and (EC) No 1099/2009 and Council Directives 98/58/EC, 1999/74/EC, 2007/43/EC, 2008/119/EC and 2008/120/EC, and repealing Regulations*

(EC) No 854/2004 and (EC) No 882/2004 of the European Parliament and of the Council, Council Directives 89/608/EEC, 89/662/EEC, 90/425/EEC, 91/496/EEC, 96/23/EC, 96/93/EC and 97/78/EC and Council Decision 92/438/EEC (Official Controls Regulation).

## BIBLIOGRAFIA

- Agirre Berezibar, Jesus Maria (2012): *Hizkera juridiko-administratiboan esamolde prepositibo berriak hedatu beharra* (Kontsulta: 2018-04-16). <https://3ieskutik.com/2012/10/26/hizkera-juridiko-administratiboan-esamolde-prepositibo-berriak-hedatu-beharra/>
- Alberdi Larizgoitia, Xabier & García García de los Salmones, Julio (1998). «Zein (...) bait-/ -n» erlatiboa: Literatura-Tradizioa», *Fontes Linguae Vasconum* 78. Iruñea: Nafarroako Hezkuntza eta Kultura Departamentua, 235.-266. or. [http://culturana Navarra.es/uploads/files/02\\_FLV78-0235-0266.pdf](http://culturana Navarra.es/uploads/files/02_FLV78-0235-0266.pdf)
- Altonaga, Kepa (2015). *Back to Leizarraga*. Iruñea: Pamiela.
- Biguri, Koldo (1994). «Erdarazko erlatiboen itzulpenaz», *Senez* 15. Donostia: EIZIE, 37.-71. or. <http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/19940901/biguri>
- Euskaltzaindia (1999). *Euskal Gramatika Lehen Urratsak V (Mendeko Perpausak- 1)*. Bilbo: Euskaltzaindia. [http://www.irale.hezkuntza.net/c/document\\_library/get\\_file?uuid=eb14dob4-8ac8-4aea-a6e0-38d4ca7bcb84&groupId=17604](http://www.irale.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=eb14dob4-8ac8-4aea-a6e0-38d4ca7bcb84&groupId=17604)
- Garzia Garmendia, Juan (2014). *Esaldiaren antolaera*. Bilbo: EHU.
- HAEE, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (2009): *IVAPeko estilo-liburua*. Gasteiz: HAEE. [http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze\\_argit/eu\\_def/adjuntos/estilo\\_liburua.pdf](http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/estilo_liburua.pdf)
- Hidalgo, Bittor (2009). «Erlatiboak iparraldean *haur prodigoaren* 141 itzulpenetan», *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo* 1-2 (43. bol.), Beñat Oihartzabali gorazarre. Bilbo: UPV, 447.-484. or. <http://www.ehu.eus/ojs/index.php/ASJU/article/download/1720/1352>
- Iñurrieta Labaien, Iñaki (2012): *legeen izenez (II)* (Kontsulta: 2018-04-16). <http://www.eizie.eus/Argitalpenak/2tzul/legeen-izenez-ii>
- IZO, HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala (2018): *Itzulpen- eta berrikusketa- irizpideak. Erabakiak eta gomendioak*. (Kontsulta: 2018-04-16). [http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/noticia/itzulpen\\_irizpideak/eu\\_def/adjuntos/irizpideak.pdf](http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/noticia/itzulpen_irizpideak/eu_def/adjuntos/irizpideak.pdf)
- Kaltzakorta, Mitxel (2007). *Prosa komunikagarriago egiten. Zenbait proposamen (I)*, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea. <http://www.ueu.eus/download/liburua/ProsaKomunikagarriago.pdf>

### Testu zaharretako adibideak

Añibarro = Pedro Antonio Añibarro, *Escu-liburua* (1821).

Axular = Pedro Agerre «Axular», *Guero* (1643).

CatB = *Cristau-doctrina Aita Gaspar Astetec erdaraz escriptua eta orai escuaraz publicatzen due-na [...] Baztango Valleco Parroco batec* (1826).

Le Dauphin = Francha Barrere-k Pierre Hayete-ri idatzitako gutuna, Le Dauphin itsasontziko (1757).

JesBih = *Jesusen Bihotz Sakratuaren alderako deboçionearen Exerçiçio izpiritualac, arrimatuac Bayonaco dioçesan altchatua den Konfardioaren usaiako* (1831).

Materra = Esteve Materra, *Doctrina Christiana* (1613).

Etxeberri = Joanes Etxeberri (Ziburukoa), *Manual devotioñezcoa* (1627).

Etxepare = Bernart Etxepare, *Linguae Vasconum Primitiae* (1545).

Harizmendi = Kristobal Arizmendi, *Ama Virginaren Officio C. Harizmendi, Apez, Saraco vicarioac eta predicariac escarara bihurtua* (1658).

Lizarraga = Joakin Lizarraga, *Ongui iltzen laguntzeco itzgaiac* (1807).

Oihenart = Arnaut Oihenart, *Les Proverbes basques, recuellis par le S<sup>r</sup> d'Oihenart, plus les poésies Basques du mesme Auteur* (1657).

Pouvreau = Silvain Pouvreau, *San Frances de Sales Genevaco ipizpicuaren Philotea* (1664).

TesBer = *Jesus-Christo gure Jaunaren Testament Berria. Lapurdico escuararat itçulia* (1928).

### Resumen

Uno de los problemas más reseñables que aún quedan por resolver en la traducción jurídico-administrativa al euskera es el de los nombres o denominaciones de las diferentes normas y leyes. Cómo insertar en el texto esos largos nombres resulta, con frecuencia, una pesadilla para traductores y redactores y una fuente de confusión para el resto de lectores, ya que si no se colocan correctamente, estos incisos dificultan considerablemente la lectura. En su esfuerzo por conseguir textos claramente comprensibles, los y las profesionales han probado todas las ubicaciones posibles: delante, detrás, entre paréntesis o guiones, en notas a pie de página..., pero no parece que se haya llegado a una solución satisfactoria. En este artículo se nos propone una posible solución, basada en un recurso de la sintaxis vasca relegado durante largo tiempo.

### Résumé

La traduction en basque des titres des normes administratives et juridiques reste encore l'une des principales difficultés à résoudre pour les professionnels de cette discipline. En effet, l'insertion d'un long titre dans un texte devient souvent un casse-tête syntactique pour rédacteurs et traducteurs, et une source de confusion pour les lecteurs. S'ils ne sont pas placés au bon endroit, les longs alinéas entravent la lecture outre mesure. Toutes les positions possibles dans la phrase ont été essayées, afin de rendre le texte compréhensible : à la fin, au début, entre parenthèses ou des tirets, en pied de page... mais aucune solution satisfaisante ne semble avoir été trouvée. Dans cet article, nous vous suggérons une éventuelle solution : nous soumettons à l'épreuve une forme syntaxique de l'euskara, longtemps délaissée mais parfaitement appropriée.

### Abstract

Among the several unresolved issues affecting legal-administrative translation into Basque, the problem of act titles stands out. In fact, inserting a long act title into a text is often a syntactic nightmare for both writers and translators, and throws the reader into confusion. When not placed in the right position, lengthy statements of subject matter greatly hinder reading. Every placement in a sentence has been tried in order to make the text understandable: the front, the end, in brackets, between dashes, in footnotes, etc. But no satisfactory remedy seems to have been found. In this article, a possible solution is suggested. For that purpose, a powerful yet long-neglected resource of Basque syntax is put to the test.